Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko apirilaren 29a, astelehena — 79 — Lunes, a 29 de abril de 2019

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## KULTURA, TURISMO, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

*Kirolgi Fundazioak Gipuzkoako kirolariei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen aldaketa puntuala.*

Diputatuen Kontseiluak, 2019ko apirilaren 16an egindako batzarraldian, besteak beste, ondoko erabakia hartu du:

Kirolgi Fundazioa, bere estatutuen 5. artikuluari jarraikiz, irabazi asmorik gabeko erakundea da, Gipuzkoan profesionala ez den kirola sustatzea eta garatzea helburu duena. Arreta berezia errendimendu kirolean jartzen du, eta horretarako babesle publikoak zein pribatuak biltzen ditu. Hala, fundazioaren sorrera helburuen eta jarduketa lerroen artean dago diruz laguntzea errendimendu kirolaren maila handienetan parte hartzen duten banakako kirolariei.

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 16. xedapen gehigarriaren 1. apartatua aldatu egin da, eta aldaketa horren arabera, sektore publikoko fundazioek dirulaguntzak emateko beharrezkoa izango dute beraiek atxikita dauden Administrazioak horretarako baimena ematea, eta hari esleitzen zaio, halaber, fundazioak emango dituen dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzeko eskumena.

Diputatuen Kontseiluak 2018ko ekainaren 12an hartutako erabakiaren bidez, Kirolgi Fundazioak kirolari Gipuzkoarrei dirulaguntzak ematea onartu zen, eta dirulaguntza modalitate bakoitzari dagozkion oinarri arautzaile espezifikoak ere onartu ziren. Erabaki hori 2018ko ekainaren 20ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (118 zk.) argitaratu zen.

Dirulaguntza horien artean daude, batetik, banakako partaidetza modalitateetako Gipuzkoako kirolari ez profesionalei zuzendutakoak –oinarri espezifikoak aipatu erabakiaren 1. eranskinean–, eta bestetik, taldekako partaidetza modalitateetako Gipuzkoako kirolari ez profesionalei zuzendutakoak –oinarri espezifikoak aipatu erabakiaren 2. eranskinean–.

Erabaki honen bidez, bada, aldatu egiten dira lehen aipatu diren oinarri arautzaile espezifikoetako zenbait alderdi, erabaki honen xedapen zatian zehazten direnak.

Horregatik, honako erabakiaren bidez, Kirolgi Fundazioari baimena ematen zaio kirolariei dirulaguntzak emateko, jarraian adierazitako dirulaguntza lerro hauen bidez:

— Banakako partaidetza modalitateetako Gipuzkoako kirolari ez profesionalak. 1. eranskina.

— Taldekako partaidetza modalitateetako Gipuzkoako kirolari ez profesionalak. 2. eranskina.

Horrenbestez, Diputatuen Kontseiluak, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuaren proposamenez, eztabaidatu ondoren,

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE CULTURA, TURISMO, JUVENTUD Y DEPORTES

*Modificación puntual de las bases reguladoras del otorgamiento, por parte de Kirolgi Fundazioa, de subvenciones a deportistas guipuzcoanos y guipuzcoanas.*

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el 16 de abril de 2019, ha adoptado entre otros el siguiente acuerdo:

Kirolgi Fundazioa conforme al artículo 5 de sus estatutos, se configura como una entidad sin ánimo de lucro que persigue, como objetivo final, la promoción y desarrollo del deporte guipuzcoano no profesional, con prioritaria atención al deporte de rendimiento, especialmente mediante la captación de patrocinios públicos y privados. Así, dentro de sus objetivos fundacionales y líneas de actuación, figuran las ayudas destinadas a deportistas individuales participantes en los más altos niveles del deporte de rendimiento.

La disposición adicional 16.ª de la Ley general de Subvenciones ha sido modificada en su apartado 1, de tal manera que las fundaciones del sector público solo podrán conceder subvenciones cuando sean autorizadas por la Administración a la que estén adscritas, a la cual se le atribuye, asimismo, la competencia para aprobar las bases reguladoras de las subvenciones que otorgue.

Mediante acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 12 de junio de 2018, se aprobaron las bases reguladoras generales del otorgamiento, por parte de Kirolgi Fundazioa, de subvenciones a deportistas guipuzcoanos y guipuzcoanas, así como las bases reguladoras específicas correspondientes a las distintas modalidades de subvención. Dicho acuerdo fue publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 118, de 20 de junio de 2018.

Entre dichas ayudas se encuentran por una parte, las destinadas a deportistas de Gipuzkoa, no profesionales, de modalidades de participación individual, cuyas bases específicas se regulan en el anexo 1 y por otra parte, las ayudas destinadas a deportistas de Gipuzkoa no profesionales de modalidades de participación colectiva, cuyas bases específicas se recogen en el anexo 2 de los que acompañan al citado acuerdo.

Mediante el presente acuerdo se procede a la modificación puntual de algunos aspectos de las bases reguladoras específicas anteriormente señaladas y que se concretan en la parte dispositiva del acuerdo.

Asimismo, mediante el presente acuerdo se autoriza a Kirolgi Fundazioa a conceder subvenciones a deportistas a través de alguna de las siguientes líneas subvencionables:

— Deportistas de Gipuzkoa, no profesionales, de modalidades de participación individual. Anexo 1.

— Deportistas de Gipuzkoa no profesionales de modalidades de participación colectiva. Anexo 2.

En su virtud, el Consejo de Gobierno Foral, a propuesta del diputado foral del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes, y previa deliberación,

EK\CV GAO-I-2019-02662

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren 2018ko ekainaren 12ko erabakiaren I. eranskinaren 5. oinarri espezifikoko 2. apartatua, Kirolgi Fundazioak banakako partaidetza modalitateetako Gipuzkoako kirolari ez profesionalei dirulaguntzak emateari buruzkoa. Apartatu hori honela idatzita geratuko da:

«2. Diziplina ez olinpiar edo ez paralinpiarren multzoan sartzen dira deialdiaren aurreko urteko abenduaren 31n modalitate olinpiarretan edo paralinpiarretan sailkatuta egon arren Kirol Kontseilu Gorenak diziplina edo proba olinpiar edo paralinpiar gisa katalogatzen ez dituen kirol modalitate, diziplina elkartu, espezialitate, proba, klase, mota, distantzia, pisu edo dena delako izendapen edo zehaztapena jasotzen dutenak modalitate horietako bakoitzaren arabera.»

*Bigarren.* Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren 2018ko ekainaren 12ko erabakiaren II. eranskinaren 4. oinarri espezifikoko 1. apartatua, Kirolgi Fundazioak taldekako partaidetza modalitateetako Gipuzkoako kirolari ez profesionalei dirulaguntzak emateari buruzkoa. Apartatu hori honela idatzita geratuko da:

«1. Kontzeptu honetan pertsona bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, honako irizpideak hartuko dira aintzat:

ACUERDA

*Primero.* Modificar el apartado 2 de la base específica 5 del anexo I del acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 12 de junio de 2018, relativo a la concesión, por parte de Kirolgi Fundazioa, de subvenciones a deportistas de Gipuzkoa, no profesionales, de modalidades de participación individual, que queda redactado en los siguientes términos:

«2. Por disciplinas no olímpicas o no paralímpicas se entenderán aquellas modalidades, disciplinas asociadas, especialidades, pruebas, clases, tipos, distancias, pesos o como se denomine o especifique en cada una de las diferentes modalidades que, aun estando clasificadas dentro de las modalidades olímpicas o paralímpicas a fecha de 31 de diciembre del año anterior al de la convocatoria, no estén catalogadas por el Consejo Superior de Deportes como disciplinas o pruebas olímpicas o paralímpicas.»

*Segundo.* Modificar el apartado 1 de la base específica 4 del anexo 2 del acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 12 de junio de 2018, relativo a la concesión, por parte de Kirolgi Fundazioa, de subvenciones a deportistas de Gipuzkoa no profesionales de modalidades de participación colectiva, que queda redactado en los siguientes términos:

«1 Para la cuantificación del importe de la subvención que corresponda a cada persona por este concepto se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

| *Kirol modalitatea / Modalidad deportiva* | *Absolutua / Absoluta Puntuak / Puntos* | *Sub Puntuak / Puntos* |
|---|---|---|
| Saskibaloia / Baloncesto | 10 | 8 |
| Eskubaloia / Balonmano | 10 | 8 |
| Futbola / Fútbol | 10 | 8 |
| Areto futbola / Fútbol sala | 6 | 4 |
| Belar hockeya / Hockey hierba | 6 | 4 |
| Izotz hockeya / Hockey hielo | 5 | 3 |
| Errugbia / Rugby 15-7 | 5 | 3 |
| Sofbola / Sófbol | 5 | 3 |
| Curlingaa / Curling | 5 | 3 |

*Hirugarren.* Baimena ematea Kirolgi Fundazioari Gipuzkoako kirolariei dirulaguntzak emateko, fundazioak berak egingo duen deialdiaren bidez, honako dirulaguntza lerro hauetan:

— Banakako partaidetza modalitateetako Gipuzkoako kirolari ez profesionalak. 1. eranskina.

— Taldekako partaidetza modalitateetako Gipuzkoako kirolari ez profesionalak. 2. eranskina.

Kirolgi Fundazioak aipatutako laguntzen 2019. ekitaldiko deialdia egin dezan baimendu den zenbatekoa, guztira, berrehun eta hirurogeita hamar mila (270.000,00) eurokoa da.

*Laugarren.* Ahalmena ematea Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuari erabaki honen xede diren diru laguntzak emateko aurretiko baimena luzatzeko, eta halaber, diru laguntzak itzultzeko eskakizunetatik eta zigorren ezarpenetik eratorritako funtzioak betetzeko.

*Bosgarren.* Agintzea erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean

*Tercero.* Autorizar a Kirolgi Fundazioa la concesión de subvenciones a deportistas guipuzcoanos y guipuzcoanas, correspondientes a las líneas subvencionales que a continuación se señalan, a partir de la convocatoria que dicha fundación realice:

— Deportistas de Gipuzkoa, no profesionales, de modalidades de participación individual. Anexo 1.

— Deportistas de Gipuzkoa no profesionales de modalidades de participación colectiva. Anexo 2.

El importe autorizado para efectuar, por parte de Kirolgi Fundazioa, la convocatoria correspondiente al ejercicio 2019 de las citadas ayudas, asciende a un total de doscientos setenta mil (270.000,00) euros.

*Cuarto.* Facultar al diputado foral del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa para otorgar la autorización previa de la concesión de las subvenciones objeto del presente acuerdo, así como para ejercer las funciones derivadas de las exigencias del reintegro y de la imposición de sanciones.

*Quinto.* Ordenar la publicación del presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente con-

EK\CV GAO-I-2019-02662

administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Donostia, 2019ko apirilaren 23a.—Ana Urkola Aramburu, idazkari teknikoa. (2662)

tra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

San Sebastián, a 23 de abril de 2019.—La secretaria técnica, Ana Urkola Aranburu. (2662)

EK\CV GAO-I-2019-02662